

Beka-deialdia, "2023-2024 ikasturtean zehar euskara ikastaroak egiteagatik".

Durangoko Udalak oso garrantzitsutzat irizten dio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari, honi esker, Durango Uriko euskaldunen portzentaia handituko delako.

Horrexegatik hain zuzen, aurrekontu partida bat ezarri du 2023-2024 ikasturtean zehar euskalduntze ikastaroetara doazen Durangoko biztanleei bekak emateko.

1. artikulua. Izaera eta erregimen juridikoa

Azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak arautuko du di-ru-laguntza, lege horren 22.1 artikulua-kin bat etorruta. Aipatutako diru-laguntza Durangoko Udalaren 2023ko Aurrekontuetan aurreikusita dago, 2022-2024 Diru-Laguntzen Plan Estrategikoaren barruan, 2021eko abenduaren 20ko Osoko Bilkuran onetsia, eta bertan informazio hau dago:

Kodea: 1.3350.2.BEK

Diru-laguntza: Euskara beketarako diru-laguntza deialdia

Zenbatekoa: 12.500 €

Partida: 61.3350.48101

2. artikulua. Xedea

Deialdiaren xedea ondorengo hau da: 2023-2024 ikasturtean zehar helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Durangoko biztanleentzako bekak emateko baldintzak arautzea, norgehiagoka erregimenean, halaxe agertzen baita Durangoko Udalak onartutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian.

3. artikulua. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izango dira Durangon erroldatuta egon, azkeneko 5 hilabeteetan gutxienez, eta aipatutako euskara ikastaroak egiten ari direnak euskalategi pribatu eta barnetegi homologatuetan.

Ez zaie dirulaguntzarik emango euskalategi publikoetan ikastaroak egin dituztenei (Hizkuntza Eskola Ofizialetan, Udal Euskaltegietan) edota IRALE, HAEEn bidezko ikastaroak egiten dituztenei.

Onuradunek egunean egon beharko dute Durangoko Udalaren eta beste administrazio publiko batzuen zerga, tasa, arbitrio eta zehapenen ordainketan.

4. artikulua. Dokumentazioa aurkezteko lekua eta betebeharreko baldintzak

Eskariak Udaleko erregistro nagusian edo **egoitza elektronikoan** aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskari-orrietan. Halaber, 2015eko urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal dira.

Eskariari dokumentazio hau erantsi beharko zaio:

- a) Dirulaguntza eskari normalizatua (Eranskina).
- b) Eskatzailearen NANA.

- c) Matrikularen ordainagiria.
- d) Euskaltegiaren egiaztagiria, ikasleak, gutxienez, %80ko asistentzia izan duela egiaztatzen duena.

Langabetuak:

- e) Lanbideren egiaztagiria, eskatzailea langabetua dela adierazten duena eta 2023ko errentaren aitorpena.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenentzat:

- f) Lanbideren egiaztagiria, eskatzaileak diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duela egiaztatzen duena.
- g) Lanbideren egiaztagiria, eskatzaileak diru-sarrerak bermatzeko errenta baino diru-kopuru gutxiago edo ezer ez duela jasotzen egiaztatzen duena.

Durangoko Udalak, Bizkaiko Elkarreragingarritasunerako Nodoaren bidez eta dagozkion elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, laguntza honen administrazio-izapideak egiteko eskatzen diren eskatzaileen datuen beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu.

Arrazoi teknikoengatik elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Durangoko Udalak izapideak egiteko beharrezkoak diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

5. artikulua. Epea

Dirulaguntza eskatzeko azkeneko eguna **2024ko uztailaren 15a** izango da.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar laneguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Halaber, jakinaraziko zaio, hala egiten ez badu, eskarian atzera egindakotzat joko dela, eta hala ebatziko da 2015eko urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legearen 68. artikulua aurreikusten dituen terminoen arabera eta, aintzat hartuta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.5 artikulua ezartzen duena.

6. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa

2023-2024 ikasturtean zehar helduentzako euskalduntze ikastaroak egiteagatiko banatuko den gehieneko zenbatekoa **HAMABI MILA ETA BOSTEHUN (12.500,00) euro** dira. Gastua 61.3350.48101 aurrekontu-partidaren kargura joango dira.

Aipatutako zenbateko hau igo egin daiteke Euskara sailaren beste dirulaguntza-programa batzuk burutu ondoren agortu gabe geratu diren diru-partiden kontura, edo diru-laguntzak ebatzi aurretik Udalak egin ditzakeen aurrekontu-aldarazpenen ondorioz. Halakorik gertatzen bada, berariazko ebazpenaren bitartez jakinaraziko da.

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, dirulaguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzultzeko beharrianen bat baino gehiago izanez gero, dena delako pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Durangoko Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.



7. artikulua. Balioztatze-irizpideak

Matrikula-kostuaren %50a lagunduko da diruz, betiere, xede honetarako jarritako aurrekontu-partidak hori ahalbidetzen badu.

Honez gain,

- Langabetuei matrikularen %60a itzuliko zaie
Laguntza hau eskuratu ahal izateko, ikaslearen familia unitatearen diru sarrerak hartuko dira kontuan. Familia unitatearen sarrerak/hileko ezin izango du Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata 2,5ean gainditu.
- Matrikularen %80a itzuliko zaie diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenei.
- Matrikularen %90 itzuliko zaie diru-sarrerak bermatzeko errenta baino diru-kopuru gutxiago edo ezer ez dutenei.
- Matrikularen %90 itzuliko zaie 62 urtetik gorako nagusiei, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:
 - o Urteko diru-sarrerak 30.000 euro/gordin baino gutxiago badituzte.
 - o Higiezinaren kapitala 30.000 euro baino gutxiago badute.
 - o Durangon erroldatuta badaude.

8. artikulua. Instrukzioa eta ebazpena

Euskara saileko teknikoaren informe teknikoa aztertu ostean, eta Herrigintza batzordeko proposamenari ekinez, eskariak alkateordearen ebazpen bidez ebatziko dira, gehienez ere, irailaren 15a baino lehen.

Aipatutako data igaro ostean ebazpenik jaso ezik, ulertu behar da eskaria gaitzetsi egin dela, gerora egin daitekeen ebazpenaren kaltetan izan gabe.

9. artikulua. Diru-laguntza ordaintzea

Dirulaguntza eman dela jakinarazi ondoren, ordainketa tramitatuko da, Aurrekontua Betearazteko Udal Araudian ezartzen denarekin bat etorriz.

10. artikulua. Betebeharrak

Dirulaguntzaren ezaugarriak kontuan izanda, hau da, kontzesioa gastua egin ostean egiten bada, ez dira zertan bete Durangoko Udalaren Dirulaguntzen eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak, dirulaguntzaren justifikazioa barne.

11. artikulua. Dirua itzultzea

Dirulaguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze-interesa itzuli beharko da era honetako dirulaguntzak jasotzen direnean beste Erakunde batetik helburu eta urtealdi bererako, halaxe ezartzen baitute indarrean dagoen Durangoko Udalaren dirulaguntzen eta bestelako laguntzak



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

arautzen dituen Ordenantzaren 16. eta 17. artikuluek.

Halaber, dirua itzultzeko zioak dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36 eta 37 artikuluetan jasotako guztiak.

12. artikulua. Araudi osagarria

Diru-laguntza honek ezartzen ez duenari dagokionez, honako lege testuak hartuko dira aintzat: Durangoko Udalaren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza; diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua eta toki erregimeneko araudi bateragarria.

13. artikulua. Datuen babesa

Durangoko Udalak euskararen erabilera sustatzeko politikak normalizatzeko, antolatze eta kudeatzeko planen kudeaketaren esparruko datuak tratatzen ditu, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen arabera. Datu pertsonalak Udal Euskaltegiari eta arloan eskumena duten beste Administrazio Publiko batzuei jakinarazi ahal izango zaizkie, hala nola Eusko Jaurlaritzari. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta datuon tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubidea ere, Udalaren helbidera edo dpo@durango.eus helbide elektronikora komunikazio bat bidalita. Halaber, informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gardentasun-ataria: www.durango.eus